

ELIZA
EBANJELIOAREN ZERBITZURA
Bihozberri zaitzte eta sinetsi berri ona (*Mk* 1, 15)

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
Sarrera	6
I. Gure aldi honetako ezaugarri batzuk	9
1. Etorkizun gizatiarrago baten gogoia.....	9
2. Bakearen itxaropena	10
3. Baztertutakoen sofrimendua	10
4. Jainkoaren beharra.....	11
5. Eliza berri baten susmoa	12
II. Eraberritutako Elizaren ezaugarriak.....	14
1. Espirituak eraberritua	14
2. Ebanjelioaren zerbitzuan	15
3. Harrera onekoa eta hurbila	18
4. Sofritzen daudenen ondoan	19
5. Bakearen alde lanean.....	21
6. Senide-elkartasunean.....	22
III. Pastoral aukera nagusiak	24
1. Espiritua zaindu	24
2. Misioa sustatu	25
3. Harrera ona indartu	26
4. Sofritzen daudenekin egon	26
5. Bakearen alde lan egin	27
6. Indarrak bateratu	28

AURKEZPENA

Eliza, izan, ebanjelizatze da. Hori da Elizaren ezau-garririk sakonena. Hala izan da beti. Hala da orain ere. Donostiako elizbarrutiko gure Eliza ebanjelizatze da izan; hori da bere bokazioa, eta leial izan nahi du bokazio horrekin. Bereziki larria da une hauetan, ebanjelizatzeza egiten zaion deia. Gure Eliza ezin daiteke axolagabe geratu, federik ezaren presioa nabaritzen duen gizarte honen aurrean; zaildu egiten baitu horrek pertsonen fedea. Gure Elizak badaki, fedea galtzea kaltegarri dela pertsonarentzat eta baita gizartearentzat ere. Horregatik, egiazko maitasunaren eraginez, ebanjelizatze dei larria sentitzen du bere barruan. «*Kristoren maitasunak behartzen gaitu*» (2 Kor 5, 14).

Salbatzailearen Jaiotzako hirugarren milurtekoaren atarian gaude. Bera izan zen Elizak mundu guztiari aldarrikatu behar dion Berri Ona, Ebanjelioa. Eliza, berriro ere, Ebanjelioaren «berritasunarekin» aurkitzen da; eta ez dauka beretzat gordetzerik, baizik eta ateetan dugun milurtekoak eskaintzen digun aldi «berriari» aldarrikatu behar dio. Horregatik, Donostiako gure Eliza erronka honen aurrean aurkitzen da: datozen aldi berriei Ebanjelioaren etengabeko berritasuna aldarrikatu beharraren aurrean.

Berria den horren aurrean, Elizak bere burua eraberri-tzera egiten zaion deia entzuten du, eta horretarako, zue-tako askok parte hartuz egindako lan sakonaren fruitu gisa zuei pozik eskaintzen dizuedan tresna hau du lagun-garri. Izen hau eman nahi izan diogu: «*Eliza Ebanjelioa-ren zerbitzura*». «Gure barrutiko Elizaren» kide garen eta geure buruak horrela sentitzen ditugun guztioi zuzendua dago, Eliza honek badakielako «zerbitzari» izan behar duela eta bere nortasuna adierazten duen zerbitzu hori «Ebanjelioa aldarrikatzea» dela.

Lekuan lekuko Elizak, ebanjelizatzeko dei larriaren aurrean sentibera izanik, asmo beraz lan egiten saiatu dira Biltzar, Sinodo edota antzeko beste ekintzen bidez. Gure Elizak, azken urteotako esperientzia onari jarraituz, orain aurkezten dizuedan agiri hau landu du.

Berau ebanjelizatzeko-lanean lagunduko digun oinarrizko erreferentzia izatea nahi dugu. Hemen aurkitu behar ditugu gure ebanjelizatzeko-landerako espiritua, helburuak eta, nola-bait, oinarrizko aukera nagusiak ere. Agiri honek lagundu beharko digu Ebanjelioa aldarrikatze bidea batera egiten eta zeregin horretan elkarturik aritzen. Horregatik, balio adierazgarria eta praktikoa izan beharko du.

«Adierazgarria», gure Eliza osoari bizi-arnasa eman behar dion ebanjelizatzeko-borondatea adierazten duelako zehazki; eta «praktikoa», agiri honen argira moldatu beharko direlako, etorkizunean elizbarrutiaren pastoral-gintzako maila guztietan landuko diren pastoral egita-rauetan adieraziko diren helburu eta hari zehatzagoak, baita horiek guztiak gauzatzeko ekintzak ere. Gainera

agiri honetan aurkitu beharko dute izateko arrazoia bera, beharrezko izan daitezkeen pastoral antolamendu-era berriek.

Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak 1998ko abenduaren 19an onetsitako agiri hau, neure egiten dut Donostiako Elizbarrutiko Gotzain eta ebanjelizatzeko-ekintzaren Arduradun naizenez, eta guztioi –apaiz, erlijioso eta erlijiosa, apostolutzako mugimendu, elkarte eta kristau-taldeoi– eskaintzen dizuet, Elizbarrutiko ebanjelizatzeko-ekintzan eta pastoralgintzan oinarritzko dokumentu izan dezagun. Era guztietako eliz zeregin, ekintza eta karismen artean eta elkartasunaren aniztasun aberasgarri eta bateratzailean, guztiok entzun behar dugu geure barruan Eliza honen eraikuntza historikoan parte hartze- ra egiten zaigun deia, Eliza osoa delako Jesusen Ebanjelioa aldarrikatzeko zereginaren aurrean leial izan nahi duena.

Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, eliztar maiteok, zuen guztion izenean, bere Espiritua gure artean egotearekin eta aritzearekin aberastu nahi izan gaituelako; eta gure mugapen, pobretasun eta guzti, lanabes hau jarri duelako gure eskuetan, Jesu Kristoren aldarrikapenaren aldeko gure zerbitzu apala eragin, adoretu eta indartu dezan.

Donostia, 1999ko urtarrilaren 1a

† **Jose Maria, Donostiako Gotzaina**

SARRERA

1. Gure elizbarrutia berriki sortua da. Bi milagarren urtean beteko ditu berrogeita hamar urte. Ez ditugu ezagutzen Jainkoak datorren milurtekorako dituen asmoak, baina zailtasunez eta agintzariez betetako aldi hau «*gure itxaropen*»¹ den Kristogan sustraiturik bizi nahi dugu.

**Kristo,
gure itxaropen**

2. «Espirituaren ahotsera» zabaldu nahi ditugu, batik bat, geure bihotzak, geure elkar-teak eta geure Eliza osoa, galdera erabakigarri hau entzuteko: «Zertara dei egiten digu gaur gure Maisu eta Jaun bakarra den Jesu Kristok?»

**Zertara
dei egiten digu
Jesu Kristok?**

3. Era berean, «*gure aldi honetako gizon-emakumeen poztasun eta itxaropenak, atsekabe eta larrialdiak geureganatu*»² nahi ditugu, eta bereziki behartsu eta atsekabetuenak. Gipuzkoako Eliza honengandik gaur egun zer espero ote duten galdetzen diogu geure buruari.

**Zer itxaroten
dute gugandik
gizakiek?**

¹ *1 Tm* 1, 1.

² *Gaudium et spes*, 1. zenb.

4. Azken batean, Jainkoaren Espirituaren indar berritzailea geuregan onartu nahi dugu, gure elizbarrutian bihozberitze-jarrera zintzo eta pozgarria sendotu eta gure eginkizunaren bilaketa kreatzaile eta itxaropentsuaren mugimendua ezarri.

**Bihozberitze
zintzo
eta pozgarria**

5. Gogo honek mugiarazten gaitu: Jesu Kristoren ikasle, lekuko eta zerbitzari izateak herri hau zerbitzatzeko. Jesusen hitz hauek ditugu ahalegin honetan gidari:

«*Ikasi Niregandik*»³: gaur ere Jaunaren jarraitzaile izaten erakutsiko duen Eliza nahi dugu.

Jarraitzaile

«*Nire testigu izango zarete*»⁴: Jesus gure artean dagoenaren eta Jesusen maitasunaren ezaugarriak emango dituen Eliza nahi dugu.

Testigu

«*Zoazte eta senda itzazue*»⁵: Eliza honetatik geure herriaren zerbitzari izan nahi dugu, guztientzat osasuntsuagoa, zuzenagoa eta duinagoa izango den bizitzaren alde lan eginez.

**Kristoren
zerbitzari**

6. Guk behar dugun eta eraiki nahi dugun Elizaren espiritua eta eredia taxutu nahi genituzke hemen, eragile eta erreferentzi gune

**Elizaren
espiritua
eta eredia**

³ Mt 11, 29.

⁴ Ap Eg 1, 8.

⁵ Lk 10, 3. 9.

izan daitezen Gipuzkoako Eliza osatzen dugun guztientzat: parrokia, elizbarrutiko erakunde, eliza eta santutegi, erlijioso/erlijiosa-elkarte, ikastetxe, kristau-elkarte eta -talde, apostoluzta-mugimendu eta pastoral arlo ezberdin guztientzat, Jesu Kristoren Ebanjelioa onartuz eta hots eginez.

7. Horrela, gure elizbarrutia, bi milagarren urtean Eliza unibertsalak ospatuko duen Jubileu nagusirako bidean jartzen da, Joan Paulo II.a Aita Santuak aurkeztu digun helburu nagusia aintzakotzat hartuz: «*kristauen sinesmena eta testigantza sendotzea*», begiak Jesu Kristo «*Salbatzaile eta Ebanjelizatzaileagan*» jarriak ditugula.⁶

**Eliza
unibertsalarekin
bat eginik**

⁶ *Tertio millennio adveniente*, 42. eta 46. zenb.

I. GURE ALDI HONETAKO EZAUGARRI BATZUK

1. Etorkizun gizatiarrago baten gogoa

8. Lan-ziurtasun ezak, bakea lortzeko eragozpenak, familiaren krisiak edota etika-mailako zenbait balore galdu izanak, etorkizunari buruzko segurantzaz eza eta beldurra ere eragiten dute zenbaitengan. Egia da, bestalde, nagusi den kulturak bizitza-tankera bakarzalea sortzen duela, eta indar handia daukatela joera neoliberal eta pragmatikoei.

**Segurantzaz eza
eta beldurra**

Hala ere, guztientzat duinago, zuzenago eta zorientsuagoa izan behar lukeen etorkizunaren ametsa indartzen ari da. Gero eta gehiago dira ongizatea, teknika-aurrerapena edota politika-estrategia soilak ez den beste zerbait nahi dutenak eta horren bila dabilzanak.

**Etorkizun
duinagoaren
ametsa**

Etorkizun gizatiarragoa lortu nahi horretan ez al dugu ikusi behar, gizakiaren adiskide leial den Jainkoa gure artean daukagunaren ezaugarri bat?

**Jainkoa,
gizakiaren
adiskide**

2. Bakearen itxaropena

9. Gure herria urte askotan bizi izan da gogorkeria mingarria sofritzen: hilketa odoltsuak, betiko apurtutako familiak, gazte espetxeratuak, kale-borroka, herrietako istiluak, familietako zatiketak, eta baita eliz elkartekoak ere.

**Gogorkeria
mingarria**

Egia da, ez dagoela akordiorik gatazkaren izaeraz eta jatorriaz, ezta konponbideei buruz ere. Sortu den distentsio-giroak, ordea, itxaropen handia esnarazi du herriarengan bakegintza-prozesua sumatzean, elkarrizketa eta adiskidetzaren bidetik.

**Bakegintzaren
itxaropena**

Hori guztia ez al da, denentzat bizia, bakea eta zuzentasuna bakarrik nahi dituen Jainko gure Aitak eragina?

**Aitak bakea
nahi du**

3. Baztertutakoen sofrimendua

10. Gaur egungo garapen sozio-ekonomikoak biztanle-sektore baten ongizate gero eta handiagoa ziurtatzen duela ematen du, beste sektore bat mehatxatua edota kanpora utzia geratzen delarik. Asko dira, hainbat arrazoi-rengatik baztertuak edo beren behar-egoeran alde batera utziak izan direnak: langabezian dauden langileak, apurtutako familiak, gaizki zaindutako adinekoak, etorkizun iluneko gazteak, gizartetik baztertuak, bortxakeriak kalte-tuak, emakume zapalduak, espetxeratuak...

**Ongizatea eta
bazterketa**

Egia da, axolagabekeriako giro nahiko zabaldua nabaritzen dela norberaren interesa ez den guztiaren aurrean. Baina nabariak dira, baita ere, sofritzen daudenenganako elkartasunaren eta arduraren ezaugarriak: gehitzen ari dira gizarte-boluntarioak, giza laguntzarako erakundeak, herrialde baztertuenganako sentiberatasuna eta ekinbideak.

**Axolagabekeria
eta elkartasuna**

Ez al dago hor bizirik Jainkoaren Espiritua, kontzientziei gizarte zuzenago eta anaikorra-
gora deitzen eta erakartzen?

**Espirituak
gizarte
anaikorra
gora eramateko
eramateko gaitu**

4. Jainkoaren beharra

11. Gaur egungo kulturak axolagabekeri eta agnostizismo-giro soziala sortzen du erlijioari buruz, eta zaildu egiten du Jainkoagana-
nako fedea. Bestalde, ez dira gutxi azken urteotan Elizatik urrundu eta erlijio-ekintza guztiak utzi dituztenak. Beharbada, gizakia gogor hartzen zuen urrutiko Jainko baten oroimena gelditu zaie barruan; baina horrelako Jainkoagan ezin dute ez sinetsi ez usterik ipini.

**Axolagabekeria
erlijioari buruz**

Hala ere, horietako asko ez ditu axolagabe uzten, ez Kristoren pertsonak, ez Honen mezuak. Batzuegan ez da hain zaila Jainkoaren-
ganako isileko gogo sumatzea; inoiz bilaketa erlijiosoa ere izan ohi da, nahiz eta beti Elizaren barruan ez izan, ezta bide garbietatik ere.

**Jainkoaren
isileko gogo**

Gaurko gure gizartean, ez al daude gizon eta emakumeak, Jesu Kristogan «*bekatarien adiskide*»⁷ eta biziaren Salbatzaile bezala agertu zaigun Jainko biziaren iragarpen berriaren zain daudenak?

Jainkoaren iragarpen berriaren beharra

5. Eliza berri baten susmoa

12. Gure Eliza argiune eta itzalune artean doa gaur egun aurrera. Ez da zaila Eliza honetan lortu diren alderdi oso onak nabaritzea: laikoen partehartze eraginkorrago eta arduratsuagoa, liturgi ospakizunen biziberritzea, karitate-pastoraltzaren garapena, gazteekiko ebanjelizatze-ahalegina, katekesi-jardueraren kalitate hobea...

Argiune eta itzaluneak

Egia da, gizartean eragina galdu izanak, gazteen urruntzeak, igandeko ospakizunera jende gutxiago etortzeak edota bokazio-krisiak kezka sortzen dutela zenbaitengan etorkizunari buruz. Baina badira beste batzuk, une hau sustraiagotik Ebanjeliora itzultzea eskatzen duen grazialdia dela ikusten dutenak.

Kezka etorkizunari buruz

Grazialdia

Ez ote da Jainkoa bideak prestatzen ari, gure artean Jesu Kristorekiko leialagoa izango den Eliza sorrarazteko?, apalagoa eta ebanjelikoagoa izango den Eliza, okerreko hainbat eranskinetatik askatuagoa, giza sofrimendutik

Eliza leialagoa Kristorekiko

⁷ Mt 11, 19.

hurbilagoa, Jainkoaren Berri Ona hots egiteko
eta Haren maitasun salbatzailearenganako
itxaropena ernarazteko indar gehiago izango
duen Eliza sorrarazteko?

II. ERABERRITUTAKO ELIZAREN EZAUGARRIAK

1. Espirituak eraberritua

13. Eskerrak ematea eta gorespena berreskuratzen egiten zaigun deia nabaritzen dugu, gure aldi honetako gizon eta emakumeoi gaur ere Jesu Kristogan dohainik ematen zaigun salbamena onartu eta doan eskaintzen duen Elizaren ezinbesteko alderdi bezala.

**Eskerrak
ematea
eta gorespena
berreskuratu**

14. Badakigu fede-ospakizuna dela «*Elizaren jardun guztiak izan behar duen gailurra, eta, aldi berean, Elizak bere indar guztia hartu behar dueneko iturria*»⁸. Horregatik, hain zuzen, sakramentu guztiak, eta bereziki Eukaristia, «*ebanjelizatze-lan guztiaren iturri eta gailur*» gisa ospatu nahi ditugu.⁹

**Fedea ospatu
ebanjelizatze-
lanaren iturri
eta gailur gisa**

⁸ *Sacrosanctum Concilium*, 10. zenb.

⁹ *Presbyterorum Ordinis*, 5. zenb.

15. Ez da gure artean ebanjelizatze berririk sortuko, Jesusen ikasleek izan zuten lehenengo esperientzia hura gugan gertaberritzen ez badugu; ikasleek Jainkoaren salbamenaren hurbiltasuna aurkitu baitzuten Kristorengan, eta Espirituak esperientzia horren berri besteiei ematera eragiten ziela sumatu zuten.

**Jesusen ikasleen
lehenengo
esperientzia
gertaberritu**

16. Badakigu sinestearen poza eta ebanjelizatzeako ausardia Jainkoaren Espirituaz bakarrik janaritzen direla, ez iraun nahi hutsez. Horregatik, ez dugu antolakuntzarekin, lanarekin edo ekintzarekin ordezkatu nahi, Espirituaren indarretik eta Jesu Kristori atxikirik bizitzetik bakarrik sor daitekeena.

**Espirituaren
indarrez**

17. Behar-beharrezko iruditzen zaigu arreta honetan jartzea: Ebanjelioarekin harreman biziagoa izatean eta igandeko Eukaristia era biziagoan ospatzean. Lehentasuna eman behar diegun oinarrizko bi gauza dira hauek, kristau-elkarteen bizia eta fededunen sinesmena janaritzeko. Horiekin batera, askoz gehiago zaindu behar ditugu otoitza eta kristau-esperientzia bizitzen lagun diezagukeen guztia.

Ebanjelioa

**Igandeko
Eukaristia**

Otoitza

2. Ebanjelioaren zerbitzuan

18. «*Ebanjelizatzea du Elizak bere poza eta berezko bokazioa, bere nortasunik sakone-*

**Elizaren poza
eta bokazioa
ebanjelizatzea**

na. *Eliza, izan, ebanjelizatze da.*»¹⁰ Uste sendo honetan oinarriturik eman nahi diogu bultzada ebanjelizatze-misioari.

19. Pastoralgintza misiolariaren tankera berria autokritika-jarrera apalez ikastera egiten zai- gun deia nabaritzen dugu; misiolari-jarrera horrek Jesusen beraren jardueran oinarritu behar du, eta gaurko gizakiaren galdekizun eta arazo- ak entzutetik hartu behar du abiapuntua.

**Pastoralgintza
misiolariaren
tankera berria**

Pastoralgintza honek bere arreta Jainkoaren Berri Ona jakitera ematean jartzea nahi dugu; eta bere oinarria boterearen baliabideak ez, baizik eta testigantza, konpromiso eraldatzai- lea eta zuzengabekerien salaketa izatea.

**Testigantza,
konpromisoa,
salaketa**

Gure asmoa ez da inori erlijioa ezartzea, baizik eta bizitzeko era bezala Ebanjelioa eskaintzea eta argi eta garbi Kristo salbamen- -itxarobide bezala aurkeztea.

**Argi eta garbi
Kristo iragarri**

20. Jainkoaren Erreinuarenganako zerbitzuak denentzat gizalegezko, senidearteko eta zuzena- goa izango den munduaren eraikuntzan konpro- miso sendoagoa hartzerantz eraman behar gaitu.

**Mundua
eraldatu**

Horretarako, askoz gehiago bultzatu eta zaindu behar du gure elizbarrutiak laikoen jar- duera eta egitekoa gizarteko zenbait gunen eta egoeratan (familiar, eskolan, lanean, kultu-

**Gizartean
jardun
Laikoen
zeregina**

¹⁰ *Evangelii nuntiandi*, 14. zenb.

ran, politikan...), bai banaka bai elkaturik; izan ere, *«beraien bidez ez bada, lurraren gatz izatera iritsiko ez den leku eta bizi-giroetara Elizaren presentzia eta eragina eramatera deituak daude bereziki laikoak»*.¹¹

21. Erlijio-mundutik aldendurik edota zalantzas betetako sinesmen ahula bizi dute nentzat, Jainkoaren itxaropenezko ezaugarri izango den Eliza nahi dugu. Badakigu, Kristogan agertu den Jainko bizia sumatu ahal izateko, giza askatasunaren aurrean errespetu handia erakusten duen Eliza ikusi behar dute la beti gudan, inor baztertzeko asmorik gabea, *«bekatarien adiskidea»*,¹² zalantzan edo duda artean dabilenarengandik hurbil dagoena, eta biziaren zentzu eta itxaropen bila dabilenaren bidelagun izateko prest dagoena.

22. Gure elizbarrutian bizirik eutsi nahi diogu Elizaren misio unibertsalarekiko kontzientzia eta konpromisoari. Bereziki beharrezko da gaur egun Elizen arteko elkartasuna eta elkarrekiko lana, ebanjelizatze-zeregina aurrera eramateko. *«Elkartasun honen eraginez, Eliza bakoitzak beste guztienganako ardura bizi du, beren premiak azaltzen dizkiete elkarri, eta elkarren artean banatzen dituzte beren ondasunak.»*¹³

**Jainkoaren
ezaugarri
aldenduentsat**

**Misiolari
konpromiso
unibertsala**

¹¹ *Lumen gentium*, 33. zenb.

¹² *Mt* 11, 19.

¹³ *Ad gentes*, 38. zenb.

23. Ebanjelizatze-misioaren eraginetik bakkarik sumatuko dugu etorkizunerako, gukorain idurikatu ezin dugun, baina, Jauna gidari duela, gizartean bere leku ebanjelikoa eta ebanjelizatzailea aurkitzen joango den Eliza; eta hortik sortuko dira eliz bokazio eta erakunde berriak.

**Etorkizunera
begira**

3. Harrera onekoa eta hurbila

24. Gure elizbarrutia harrera hobe egingo duen eta hurbilago egongo den Eliza egin behar dugu, egungo gizon eta emakumeei beren arazo, galdera, sofrimendu eta pozaldietan adiskide gisa entzuten eta laguntzen jakingo duena.

**Adiskide gisa
entzun
eta lagundu**

25. Zerbitzu-jarrera izango duen Eliza nahi dugu, bere segurtasunaz eta etorkizunaz ez, baizik eta gizon eta emakumeen onaz eta zorionaz arduratuko dena. Gure aldiko kezka nagusietan esku hartzen duen Eliza: biziaren eta giza eskubideen defentsan, balore etikoen hezieran, bakegintzan, baztertutakoen sofrimenduan, herrien arteko solidaritatean, Lurrari buruzko arduraren, langabezian, familian, gazteen etorkizunean, emakumearen duintasunean, adinekoen arazoetan.

**Zerbitzu-jarrera
duen Eliza**

**Gure aldiko
kezka
nagusietan
esku hartzen
duena**

26. Gazteek, laguna den eta beraien zailtasunak ulertzen dituen Eliza ezagutzea nahi dugu gure elizbarrutian; berauek eraberritzeko duten

**Gazteengandik
hurbil**

ahalmenaz fidatzen dena. Eliza honetan aurkitu behar dute gazteek, beren kristau-esperientzia heldutasunera eramateko beharrezko dituzten aitormena, harrera ona eta babes, Eliza horrek duen ondasunik preziatuena aurkituz: Jesu Kristo eta Honen Ebanjelioa.

27. Bikoteen eta familien bizitzatik hurbilago egon nahi dugu, beren arazo, sofrimendu eta pozetan parte hartzeko. Guraso kristauei laguntza gehiago eskaini behar zaie eliz elkartetik, familia erlijio-esperientziarako eta giza eta kristau-baloreetarako sarbidearen lehen gunea izateko duten eginkizunean. Arreta handia izan nahi dugu, gainera, ezkontzaren edota familieren hausturaren ondorioak jasaten dituztenei Ebanjelioaren araberako harrera egiteko beti.

**Familiari
lagundu**

4. Sofritzen daudenen ondoan

28. Kristo «*gantzutu*» eta «*behartsuei Berri Ona hots egitera bidali* [zuen] *Espirituak*»¹⁴ berak dei egiten digu, gaurko gizartean geure tokia aurki dezagun oraingo gurutziltzatuen artean, gaurko kaltetuen, pobretuen, bizitza eta zuzengabekeriak direla-eta gaizki erabiliak direnen artean. Badakigu behartsuei solidarita-

**Geure tokia
aurkitu
sofritzen
dudenen
ondoan**

¹⁴ Ikus *Lk* 4, 18.

tea erakutsiz izan ezik, gure Eliza ez dela Jesu Kristoren testigu eta itxaropen-ezaugarri izango guztientzat.

29. Horregatik, gure eliz elkarteak pertsonen sofrimendura hurbildu nahi ditugu, batez ere beren buruak bazterturik edo behar-egoeran alde batera utzirik ikusten dituztenen sofrimendura. Azken urteotan laguntasun- eta bergizarteratze-zerbitzuak eta -bideak antolatu ditugu. Gaur, horrez gain, dei berri bat nabaritzen dugu: sofritzen daudenengandik hurbilago egon nahi dugu, behar-egoeran aurkitzen diren pertsoneri lagundu, zuzengabekerietan babesa eman, geure artean beroriei leku gehiago egin. Izan, behartsuentzat ez bada, Elizak ez dio Jesusen bideari jarraitzen.

30. Gure pastoralgintza gaur, batez ere, katekesiaren eta *liturgiaren* inguruan dago eraikia. Kristori leialki jarraitzeak, behartsuenganako zerbitzua ere gure kristau-elkarteen erdigunean bizikiago jartzea eskatzen digu; sentiberago izaten, arazoetan gehiago sartzen eta gizarte anaikorrago eta zuzenagorantz bidea egiten lagunduko diguten keinu, ekinbide, jokaera eta salaketak bultzatuz.

31. Gure herrian zenbait arazo sakontasun bereziz bizitzeak ez dio galarazi behar gure Elizari Lurreko herrialde pobretuekiko elkartasuna eta berauekin sofritzen duten Elizekiko

Ez laguntasun-zerbitzu hutsa

Gainera: hurbil egon, lagundu eta babesa eman pertsoneri

Behartsuen zerbitzua kristau-elkarteen erdigunean

Hirugarren Munduarekiko elkartasuna

elkarlaguntza garatzea. Ez dugu Europara bakarrik begiratu nahi. Kristoren Espirituak Hirugarren Munduko behartsuen bidez egiten digu oihu larria.

5. Bakearen alde lanean

32. Gipuzkoako Elizak bakegintza-lanetan bere laguntza eman nahi du une hauetan, bere misio bereziaren arabera. Inoiz baino gehiago, adiskidetzearen eta bakezko bizikidetzaren alde otoitz egiten, hezten eta lan egiten duen Eliza izan nahi du.

Otoitza, heziera, lana, bakearen eta adiskidetzearen alde

33. Gure elizbarrutiak zerbitzu bikoitza eskaini nahi du, batez ere, gure herriaren bakegintzan: gizabanakoen eta taldeen eskubideen defentsa eraginkorra, eta gatazken konponketarako bide baketsuak eragitea.

Eskubideen defentsa, bide baketsuak erabiliz

34. Jaun berarenganako sinesmenak eta Ebanjelio berarekiko atxikimenduak kultura- eta politika-alorreko gure ezberdintasunak anai-kortasun handiagoz Elizaren beraren barruan bizitzen lagundu behar digu. Euskararen erabilera normalizatzeak eta elebitasunaz ego-ki baliatzeak asko lagun dezakete bizikidetzaz lortzen.

Eliz barruko ezberdintasunak anaitasunez bizi

35. Eliz elkarteak indartu egin behar ditu hainbat esparrutan bere ahaleginak, gure artean hain beharrezko ditugun baloreetan hezten joa-

Bakerako beharrezko

teko, esate baterako, biziaren eskubidean, herri honen nortasun eta borondate anitzarenganako errespetuan; tolerantzian eta elkarrizketa-bideetan; adiskidetzean, barkamenean, eta bortxakeria jasaten dutenengana urreratzean.

**diren
baloreetan
hezi**

36. Gure Elizako kideek beren buruak erabaki sendoagoz konprometitzea nahi dugu, eliz elkarteak berak eragindako nahiz gizarteak antolatutako ospakizun, keinu, ekinbide edo jokaeretan, zuzentasunean oinarritutako bakea lortzen lagun badezakete. Elkarrizketa eta adiskidetzearen eragile izan nahi dugu.

**Bakegintzaren
aldeko
konpromisoak**

6. Senide-elkartasunean

37. Gure Elizaren barruan senide-elkartasuna askoz gehiago sendotzera egiten zaigun deia nabaritzen dugu. «*Aita bat bakarra daukagu, zerukoa, eta Maisu bat, Kristo.*»¹⁵ Berau dugu guztiena den Elizaren Burua. Laiko, erlijioso/erlijiosa eta apaizek Jainkoaren Herri bat-bera osatzen dugu guztiok, Jesu Kristoren ikasle eta jarraitzaileen elkarte. Espiritu honetatik harreman, elkarbabes eta elkarlanerako bide berri eta anaikorrak bilatu nahi ditugu.

**Senide-
-elkartasuna
sendotu**

38. Senide-elkartasun honek parroki elkarleen arteko elkarlan estuagoa, eta parrokien,

**Elkarlan
estuagoa**

¹⁵ Ikus *Mt* 23, 8-9.

ikastetxeen, erlijioso/erlijiosa-elkarteen eta kristau-taldeen arteko lan bateratuagoa eskatzen dizkigu gaur egun. Bestalde, herri txikietako parrokiek une hauetan gure Elizaren babesa eta arreta berezia izan behar dituzte, artziprestaldeetako eta elizbarrutiko pastoral plangintzetan ahaztuta geratu gabe.

Parrokia txikiei lagundu

39. Eliza osoa da misiolari, eta ebanjelizatze-lana Jainkoaren Herri osoaren oinarrizko zeregina da.¹⁶ Honek guztien ardurakidetza eta parte hartzea eskatzen ditu, eta bataiatu bakoitza bere bokazioa aurkitu eta burutzera eraman behar du. Gure elizbarrutiak erantzukizunez aurpegi eman nahi badio etorkizunari, sustatu, deitu eta prestatu egin beharko ditu bokaziodunak hainbat zerbitzu eta karisma burutzeko, bai kristau-elkartearen bizitzarako bai ebanjelizatze-misiorako.

Ardurakidetza

Bokazio desberdinak sustatu

40. Gure Elizak gehiago garatu nahi du laikoen partaidetza eta erantzukizuna koordinaketa- eta zuzendaritza-lanetan, gure indar ebanjelizatzailea ahuldu besterik egiten ez duten fidakaizkeriak edo iheskeriak gaindituz.

Laikoen partaidetza eta erantzukizuna

41. Gure elizbarrutian emakumeak dagoen aitormena izatea nahi dugu, balioztatua eta onartua izatea, inolako bereizkeriarik gabe.

Emakumearen aitormena

¹⁶ Ikus *Ad gentes*, 35. zenb.

III. PASTORAL AUKERA NAGUSIAK

42. Gure Eliza eraberritzeak oinarrizko aukera nagusi batzuk egitea eskatzen du, pastoral lana hobeto antolatzeko. Aukera hauek lehen aipatu ditugun Elizaren ezaugarriei dagozkienak dira; ondorengo urteetan gure ahaleginak eta sormena norantz zuzendu behar ditugun adierazten digute.

**Aukera
nagusi batzuk
egin**

1. Espiritua zaindu

43. Jainkoaren Espirituaren eraginean gure uste ona jarritz aritu behar dugu lanean, Espiritua lanean ari delako gaur ere eliz barruan eta Elizatik kanpora. Fede honek oraingo garai hau itxaropenez bizitzen lagundu behar digu. Jainkoaren Espiritua dugu gidari, eusle eta eragile gure lanean. Ez zaigu eskatzen geure indarren gainetik dagoen ahalegina egitea; Jainkoa bera munduan egiten ari den salbamen-ekintzan parte hartzea baizik.

**Uste ona jarri
Espirituaren
eraginean
Elizan
eta munduan**

44. Eliz lan eta ekintza guztietan arreta handiagoa jarri behar dugu Espirituari entzuten, arduratsuago izanez Berak ari duen langintzarekiko eta Beraren deiei erantzunez. Horrek Jainkoaren esperientzia gehiago lantzea eskatzen digu, eta erne egotea Haren salbamen-ekintzaren zantzueta.

**Arreta jarri
Espirituaren
lanari**

**Haren deiei
erantzun**

2. Misioa sustatu

45. Berreskuratu egin behar dugu, gure Elizaren zereginik funtsezkoena ebanjelizatze-misioa denaren kontzientzia. Kontzientzia honek eman behar die bizi-arnasa eta batasuna gure ahalegin, asmo eta ekintza guztiei, era berri eta indartsuan eman ere.

**Ebanjelizatze-
-misioak
bizi-arnasa eta
batasuna eman
behar die...**

46. Ebanjelizatze-misio hau guztion zeregina eta erantzukizuna da. Premiazko eginkizuna dugu geure elizbarrutian, kristau-elkarte, talde eta familietan, eta baita bataiatu bakoitzean ere ebanjelizatze-kontzientzia eta -ahalmena esnaraztea.

**Ebanjelizatze-
-misioa guztion
zeregina eta
erantzukizuna**

47. Ondorengo urteetan gure Elizak izango duen benetako erronka zera da: batez ere fedeari eustera begira dagoen pastoraltzatik gehienbat misiolaria izango den pastoraltzara igarotzea, hau da, erlijio-esnaera eta fede-esperientzia berreraikitzea helburu dituen pastoraltzara igarotzea. Horrek fededun guztien ardura

**Euste-
-pastoraltzatik
pastoraltza
misiolarira**

misiolaria garatzea eskatzen du, apostolu-lan-gintza desberdinetarako bokazioak sustatuz.

3. Harrera ona indartu

48. Gure aldi honetako gizon-emakumeen, eta bereziki behartsuen eta sofritzen daudenen, poztasun eta itxaropenak, atsekabe eta larrialdiak gure elizbarrutia osatzen dugun kristauon poztasun eta itxaropen, atsekabe eta larrialdi izatea nahi dugu.¹⁷ Gaurko gizakiarenganako hurbiltasun- eta zerbitzu-borondate honek ukitu berezia eman behar dio gure zeregin guztiari.

**Gaurko
gizakiaganako
hurbiltasuna
eta zerbitzua**

49. Giza esperientziaren, gizakien bizitzaren eta herriaren arazoan irakurketa berri bat egin behar dugu, horiek direlako Jainkoaren Erreinuak hazi behar dueneko lurra. Horrek leku-aldaketa bat eskatzen digu gaur egun, pertsonen egiazko bizitzara gehiago hurbiltzea, alegia, batez ere familiaren eta gazteriarren alorretan; eta gizaki orori adiskidetasunezko eta bihotz zabaleko harrera egitea.

**Leku-aldaketa
pertsonen
egiazko
bizitzara**

4. Sofritzen daudenekin egon

50. Gure elizbarrutiak bere leku ebanjeliko eta ebanjelizatzailea aurkitu behar du gaurko

Solidaritatea,

¹⁷ Ikus *Gaudium et spes*, 1. zenb.

gizartean, behartsuenekin eta erabat alde batera utziak daudenekin solidaritatea izanez, bakardadean eta bazterturik daudenei dohainezko zerbitzua eginenez, babesik gabeei baldintzarik gabeko babesa eskainiz, eta ahulenei egindako zuzengabekeria eta zapalketak salatuz.

**dohainezko
zerbitzua,
baldintzarik
gabeko babesa**

51. Urruti gaude Eliza pobrea eta pobreen Eliza izatetik; baina pauso zehatzak eman nahi ditugu «Eliza samariarra» izate bidean, sofritzen dutenengana hurbildu eta horientzat askatasun osoa lortzeko egin dezakeen guztia egingo duen Eliza izateko. Jesusen Espirituak behartsuengana bidaltzen gaitu.

**«Eliza
samariarra»**

5. Bakearen alde lan egin

52. Bakea alde batera utziezinezko helburua da guretzat. Gure Eliza bakearen, adiskidetzearen eta barkamenaren ezaugarri eta eragile izatea nahi dugu eta horretan ahalegindu behar dugu guztiok. Bakea lortzeko boronda-teak markatu behar ditu gure kristau-elkarteak, eta gure pastorgintzaren eta laikoen konpromiso hiritarraren joera.

**Bakea,
utziezinezko
helburu
pastorgintzan
eta konpromiso
hiritarrean**

53. Gure elizbarrutiaren «*Bake-agiriaren*»¹⁸ espirituan aritu nahi dugu lanean aspergabe,

**«Bake-
-agiriaren»**

¹⁸ «Bake-agiri» hau 1992-XII-19an bakearen alde Arantzazura egindako elizbarrutiko Ibilaldian aldarrikatua izan zen. Ikus *Donostiako Gotzaindegiko Aldizkari Nagusia*, 1993, 23-27. orr.

bizia jarriz heriotza nagusi den lekuan, askatasuna gogorkeriaren lekuan, elkartasuna banaketaren lekuan, egia gezurraren lekuan, elkarriketa konponezinaren lekuan, barkamena gorrotoaren lekuan.

espirituan

6. Indarrak bateratu

54. Jainkoaren Herri osoaren erantzukizuna eta partehartze eraginkorra piztu behar ditugu era askotakoak diren bere kideengan eta karismetan, Jainkoaren Herria delako eliz bizitzaren subjektua eta baita gizartearen erdian Elizak duen misioarena ere.

Jainkoaren Herria eliz bizitzaren eta misioaren subjektua

55. Gehiago indartu behar ditugu komunikazioa, elkarri laguntzea eta elkarlana, geure desberdintasun eta aniztasunetik senidearteko elkartasuna bultzatuz.

Aniztasunetik elkartasuna bultzatuz

56. Etorkizunean gehiago landu behar ditugu, laikoen, erlijioso/erlijiosen eta apaizen arteko koordinazioa eta lan bateratua, ebanjelizatzeke era berrien zerbitzuan.

Koordinazioa eta lan bateratua landu